


• ASTERO GAIA •

Harrobiak bidesari garestia



Autobia edo igarobide bat egiteko milioika tona material behar dira. Asko dira martxan dauden garraio azpiegitura proiektuak eta harri eskaria asegaitza da. Euskal Herriko zenbait herritan harrobi zaharrak irekitzeko saiakera atzeman da; harrobi kare harrizkoak, lan erraldoientzako agregakinak sortzeko egokiak. Izan ere, superkaminoek bidesari ugari izango dituzte: ekonomikoak batzuk, ingurumenak ordainduko dituenak besteak.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

Irudian, Buruntzako (Gipuzkoa) harrobia.

Harrobiak

LEHEN EGUNEAN makinak sartu zituzten, iluntzerako baserrien horma zaharrak bota, bigarren egunean mendiari saihesta jan zioten eta hirugarrenarako irentsita zegoen. Gipuzkoan, Urnieta eta Hernani arteko Mandazubi eta Bakero baserrien hilobitik pasako den asfaltozko bidelasterra egiteko mendia ebaki dute, cutter batek papera bezala.

Erakunde publikoek datozen urteetan garraiobide eta obra erraldoi ugari eraikiko dituztela jakina da. Ezagunak ditugu, itxuraz behintzat, Abiadura Handiko Trena, Jaizkibelgo magalean eraiki nahi duten Pasaia kanpo-portua, Bilbo inguratuko duen Supersur errepidea... Inork ez du ukatzen saihesta eta portu erraldoi horiek egiteko harrobietatik atera beharko dela materiala. Harria Euskal Herrira inportatzea garestiegia da eta inportazioak kutsadura handia sortuko luke gainera. Beraz, izatekotan, labeldun azpiegiturak izango ditugu, bertako harriarekin eginak. Gaur egun EAEn 48 harrobi daude martxan eta 60 inguru Nafarroan, ofizialki. Honen harira, Asecabik (Bizkaiko Harrobien Enpresen Elkarteak) duela gutxi adierazi zuen gaur egungo harrobien ustiapena azkenetan dagoela. Elkarte honek esplotazio gehiago irekitzeko beharra ikusten du: “Y trenbidea edo Supersurra eraiki nahi baditugu harrobi gehiago beharko ditugu, bestela obra horiek gelditu egingo lirateke”, esan zuen Manuel Fernandez Asecabiko lehendakariordeak.

Nondik aterako da materiala?

Enpresariaren hitzak deigarriak dira oso, herri askotan geldirik zeuden harrobi zaharrak martxan jarri edo berriak irekitzeko planak atzeman baitituzte. Horren aurrean, kontrako plataforma eta taldeak sortu dira; hauek diotenez, ustiaketa egitasmo horiek lotura zuzena dute erakunde publikoetatik bultzatzen ari diren azpiegitura eta obra erraldoekin. Eusko Jaurlaritzak ukatu egin du horrelakorik, eta ziurtatu du ez dela harrobi gehiago irekiko trenbide berria eraikitzeko.

Baina datuak hor daude: obra horiek mugitutako lur kopurua izugarri handia izango da. Esaterako, AHT Gelditu! Elkarlana plataformaren txostenak dio trenbide berriarentzako tunelak egiteko hormigoiak 4,1 milioi tona agregakin beharko dituela. Pasaia kanpo-portuarentzat ere 6 milioi tona harri aterako dira inguruko mendietatik eta Bilboko Supersurrak beste hainbeste beharko omen ditu. Hobeto ulertzeko: Udalaitz alde zulatuko duen tunela egiteko, kasik New Yorkeko Dorre Bikiek adina hormigoi erabiliko da.

Koral arrezife baten gainean bizi gara

Aiako Harriaren itzala Oiartzungo Ergoien (Gipuzkoa) auzoraino luzatzen da. Harri harrigarria da hura, geologiaren kapritxo bat. Sumendi batetik jaiotako granitozko kolosoa aspaldi ustiatu zuten erromatarrek, “baina zorte handia izan du, granitoa ez da kalitatez hain ona eta horregatik ez dute bertan harrobirik egin” dio Jose Angel Torresek, Luberri Oiartzungo Geologia Ikastegiko arduradunak.

Harrobiak

Ergoingo egoitzara hurreratu garenean lanean topatu dugu Aranzadiko geologoa; fosilak, harriak eta mineralak dira bere bizitza, nabari da. “Nolakoa da gure ADN geologikoa?” galdetu diogu. “Duela 290 milioi urte, Euskal Herri osoa itsas azpian zegoen, Aiako Harriko eremua izan ezik. Gero, duela 120 milioi urte, plaka iberikoa hurbildu zen guregana; Errioxako itsasertzean dinosauroak paseatzen ziren bitartean koral arrezifeak agertu ziren ur azpian”. Hain justu, Euskal Herriko mendi lerro gehienak (Aizkorri, Gorcea, Urkiola, Ernio...) arrezife horietako fosilez josita daude, “Aralarko San Migelen paisaiari begiratu beharrean lurrera begiratuko bagenu, segituan aurkituko genuke itsas triku baten edo koral baten irudia”, dio Torresek irribarrez.

Hilerri fosilizatu honen egitura karstikoa da, eta urak forma kurioso imajinaezinak maneatu ditu bere barrunbeetan. Mendi tontorrean erortako ur tantak itsasoan amaitzen du, ilunpeko ibilbide baten ondoren: “Urenen pasabideak txikitzen baditugu sekulako mina egiten diogu naturari”, ernegatu zaigu geologoa. Jakina, harrobiez ari da. Harrobi mota ezberdinak daude: Harria apaingarri bezala erabiltzeko esplotazioen artean Markinako (Bizkaia) marmol harrobia da ezagunena. Marmola oso preziatua da, baina harri gutxi ateratzeko asko industu beharra dago; gainera, ateratakoa Europa esportatzen dute, bertan tratatu eta saltzeko. Hau da, lehengaia ateratzeko txikizioa bai, baina onura ekonomikoak ez ditugu sumatzen harrobi hauekin. Harroben gehiengoak industrialia da ordea, kareharri arruntez osatua eta aspaldian arrezife ederrez jantzia. Torresek azaldu digunez, harrobi mota hauek berriz martxan jartzeko aukera aztertzen hasi dira enpresa batzuk eta sektorearen kontzentrazioarako joera nabarmena ikusi dute. Kasu batzuetan eremu publikoak bereganatzeko asmotan omen dabil-

tza gainera, makroproiektuen “behar sozialean” babestuta. “Lehenago eskuz egiten zuten, gaur egun kapaz dira hiru hilabetetan mendia jateko”, dio Luberriko arduradunak.

Lau eskaera berri

Harrobi bat irekitzeko azkeneko baimena duela 16 urte eman zuen Eusko Jaurlaritzak. Gaur egun 4 eskaera daude jasota

Eskuineko irudian, Urumeako autobideko obrak Astigarragan (Gipuzkoa). Ezkerrekoan, Buruntzako harrobia Leitzarango autobiaaren atzean. EAEn 2005ean 18 milioi tona agregakin gastatu ziren, horietatik 15 milioi bertako harrobietatik aterata eta beste 3 milioi inportaturik. Nafarroan 723.000 tona porlan erabili ziren 2005ean eraikuntzan.

Errezil: zulo handi bat Arzallus auzoaren erdian

Enpresa pribatuen asmoen ondorioz kezka handia sortu da herritarren artean, batez ere kalteturik suerta daitezkeen lekuetan. Arzallus auzora Azpeitia eta Errezil (Gipuzkoa) elkartzen dituen errepidetik iristen da. Halako batean, ezkerreko dagoen bidexka bat hartu eta gora egin dugu errebolta festari ekinez. Paraje zoragarria topatu dugu mendi kaskoan: baserriak, basoak, mimoz zaindutako belazeak... Han bizi da Josu Bereziartua mendizalea, Aranzadizabal baserrian. “Ondoko baserrikoak eza-gunak dira, Idiazabalgo gazta egiten dute”, esan digu adeitsu, ongi etorria emanez. Katran baserriko gaztagileak ere ez omen daude harri gose-tik salbu.

Auzoa korridore ekologiko baten barruan dago, Pagoetako parke naturaletik gertu, eta nekazal turismoa oso ohikoa da bertan. Alarma duela urte batzuk piztu zen, Udalak Extra-Aintza izeneko harrobi zaharraren inguruak birkalkifikatzeari ekin zionean: “bi hektarea dituen harrobiaren gainean 14 hektareako bat egin nahi dute, baina ez dituzte kontuan hartu horrek sortuko dituen kalteak”. Eta ez dira gutxi. Harrobia egin nahi duten lekuan lur azpiko akuifero garrantzitsua dago, Gazume mendiko mazeletatik datorrena; erreserba hori mugitzeak kalte egin diezaioke bailaran behera doan errekarari, eta horrenbestez, bertako naturari. Hain zuzen, akuiferoa eta erreka interesgune hidrologiko izendatu dituzte duela gutxi. Bestalde, inguru horretan Aintzulo izeneko koba dago. Brontze Aroko aztarnak azaldu dira eta Aranzadi elkarterko txosten batek dio harrobiak kobari kalte egin diezaiokeela, oraindik prospekzio arkeologiko



sakonik egin ez duten arren. "Honek ez du ez hanka ez bururik! –esan digu Bereziartuak asalaturik–, nekazal turismoa bultzatzeko leku ederra da hau, esaten digute etorkizunean horretara jo behar dugula, eta orain harrobi bat irekiko digute?"

Udalak behin behineko onarpena eman zion lurak birkalifikatzeari, baina Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen txostenak zenbait zuzenketa egiteko eskatu dio. Herritarrek irregulartasun batzuk ere aurkitu dituzte. Adibidez, harrobia "geldirik" dagoela argudiatu dute sustatzaileek, baina harrobia "itxita" omen dago. Errezilgo alkate Iñaki Oiarzabalek esandakoaren arabera, oraindik ez dago ezer erabakita, baina asmoa badago kontua "legalizatze"ko". Aitzitik, auzotarren artean mesfidantza da nagusi. Badirudi egitasmoa herriaren gaineko interesek babesturik dagoela eta harrobiaren kontrako 300 sinadura bildu dituzte errezildarren artean. "Hori, seiehun biztanle eskas dituen nekazal herri batean ez da batere erraza" azpimarratu du Arantzadizabal baserrikoak.

Extra-Aintzatik kareharri beltza aterako dute, obra handietako bete-lanetarako primerako materiala omen da. Antza, Construcciones

Errestaurazioa zuloak betez?

Obra handiek hondakin piloa sortzen dute: tunel, lubeta edo eraitsitako eraikin zaharretik ateratako materiala da. Gainera, gero eta gehiago dira hondakinak, obrak gehiago direnez. Katalunian biltegiak sortu dituzte, hondakin horiek birziklatu, kontrolatu eta ahalik eta probetxu gehien ateratzeko.

Euskal Herrian ez da horrelakorik. Aitzitik, itxita dauden zenbait harrobiren zuloa betetzeko eraikuntza obrek sortutako hondakinak erabiliko dituzte. Egitasmo hori harrobiak "errestauratzeko" politikaren barruan sartu dute erakunde publikoek eta zenbait lekutan hasiak dira zuloak betetzen: Arrasaten, Hernanin... Bilboko Super-

surreko hondakinak, adibidez, Pagasarriko harrobietan botako dituzte.

Metodo egokia?

Baina polemikarik ez da falta. Harrobiaren errestaurazioa esplotazioaren jabeari dago-kio legez eta kasu batzuetan enpresa hondamendian dagoela alegatu dute, errestaurazio gastuak administrazio publikoaren gain uzteko. Beste batzuetan negozio iturri bilakatu da, beste obretatik ateratako materialekin zuloa bete besterik ez baitute egin. Kontuak kontu, harrobiak zabortegei bihurtzeko arriskua ikusten du askok ekimen horiekin eta zalantzak sortu dira: egongo al da zuloa botatako hondakinen nolabaiteko kontrolik?

Amenabar eta Hormigones Azkune daude esplotazioan interesaturik. Enpresa hauek, inguruko zenbait harrobi ezagunekin (Osinbeltz, Sasiola...) jokamolde antzekoa izan dute: harrobiaren jabetza eraikuntza enpresarena da normalean, baina harria hormigoi lantegiak erabiltzen du morteroa egiteko eta eraikuntza enpresa handiak hornitzeko. Enpresa hauek azpiegitura obra ikaragarriak egiteko lehian daude etengabe eta batzuetan elkartu egiten dira indar gehiago izateko. Esaterako, Donostiako bigarren ingurubideko zati garestiena eskuratzeko Moyua, Altuna y Uri, Amenabar eta Galdiano enpresek bat

Jaso astero ARGIA etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 PK. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

☐ "Ardibidez" mahai-jolasa

☐ "888 txiste" liburua

☐ "Mokogorri" puzzleak

☐ %25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian



Harrobiak

egin dute. Obrak 164 milioi euroko aurrekontua du eta hasiak dira eraikitzen.

Jarduera "estrag" eta harri eskaria

Zurumurrua bolo-bolo dabil azkenaldian: Eusko Jaurlaritzak txosten bat egin du EAEn harrobiak egin daitezkeen lekuak kokatzeko. Ehundik gora leku aztertu ditu EEEK (Energiaren Euskal Erakundeak), horietako batzuk parke naturalen barruan leudeke eta gehienak lur barruko harrobiak izango lirateke. Hain zuzen, Jaurlaritzak dirulaguntzak eskaini ditu lur azpiko utsiaketak sustatzeko, "inguruarekin begirunetsuagoak" omen direlako. Baina Luberriko Angel Torresek esan bezala, "lur barrukoa gauza sekretu bat bezalakoa da, ez da ikusten, baina hor dago eta badu bere aberastasuna". Geologoa Tindaya mendian (Kanariar Uharteak) edo Udalaizten egin behar dituzten "ezkutuko" zuloekin arduratsu azaldu da egin diogun bisitan: "Tindayan traquita dago eta beso zabalik hartu dute Chillidaren proiektua. Udalaizten AHTa jarri dute aitzakia bezala, tiro batez bi txori: materiala eta trenbidea".

Administrazio publikoaren arrastoari jarraituz, Industria saileko Meatzaritza Zuzendaritzara ailegatu gara: "Txostena existitzen dela egia da, baina hurbilketa geomorfologiko soila da, harrobi izan daitezkeen zonaldeen balorazio bat, besterik gabe" esan digu Jesus Cospedalek, garrantzia kenduz. Meatze zerbitzuetako buruari galdetu diogu ea egia den harri eskariaren ondorioz harrobi gehiago irekiko direla: "Ez da dudarik harri eskaria handitu dela, baina ez zirkunstantzia zehatzengatik, kasuistika ezberdinengatik baizik. Zaila da harrobi baten irekiera 'euskal Y-a' bezalako proiektu

Praileaitz

Debako (Gipuzkoa)
Sasiola esplotazioa
Amenabar
enpresaren esku dago.
Hasierako
asmoa mendi osoa
jatea zen, baina
Praileaitz I-eko
azterna
arkeologikoek
eragotzi dute hori.
Iturri batzuen
arabera Gipuzkoako
ahaldun nagusiak
ez du arazoa
kudeatzeko jakin
izan eta horregatik
apartatu omen
dute kargutik.
Aranzadiren ustez
aztarnak kontser-
batzeko beharrez-
koa da geratzen
den mendi magala
mantentzea, alegia,
harrobiko lanak
geratzea.

zehatz batekin erlazionatzea, hainbat urte irauten duen prozesua da hori". Hala ere, Cospedalek aitortu du badagoela loturarik eta material eskaria handitu dela gero eta hormigoi gehiago erabiltzen delako: "Jarduera 'estra' batzuk daude eta eragin erlatiboa dute eskariaren gorakadan", dio. "Eta harrobi-enpresen kontzentrazioaz, zer diozu?" itaun dugu segidan. "Merkatua teknifikatzen ari da eta kontzentrazioarako joera logikoa dago. Baina sinergia horiek positiboak dira, kalitate eta errentagarritasun handiagoaz gain legea hobeto betetzen dutelako, seguruagoa da".

Txorokil: baso aberatsa arriskuan

Gorbeia eta Urkiolako parke naturalen artean dago Txorokil (Zeanuri, Bizkaia), inoren lurrean. A-68ko bidesaria saihesteko Barazarko portutik pasatzen diren kamioien joan-etorria kasik ez da entzuten bertatik, bai ordea igelen korroka edo karnabaren kantua, edo haizearen jolasa pagadien hostoak laztantzen. Iraitz eta Kimetz Intxaurrea zeanuriarrak ditugu gidari, beraiek eraman gaituzte Txorokil harrobi zaharrera: "Francoren garaitik itxita dago eta basoak estali du jadanik" diote. Hala ere, kareharritzko pareta ikusgarri batekin egin dugu topo bertara iristean. Hiru hektarea jan zizkieten mendiari eta orain beste 18 irentsi nahi dizkio, inguruko baso guztiekin batera. Propio sortutako Cantera de Zeanuri S.L. enpresak lursailaren jabeek erosketa eskaintza egin die eta hauek lurra birkalifikatzeko eskatu diote Zeanuriko Udalari. Dena den, momentu honetan kontua geldirik dago, Bizkaiko Foru Aldundiak atzera bota baitu birkalifikazioa, Ingurumen txostenean akatsak ikusi eta gero.

HARROBIAK HEGO EUSKAL HERRIAN



	GIPUZKOA	ARABA	BIZKAI	NAFARRA
ESPLORAZIOAK	18	5	29	83
LANGILEAK	237	47	300	347





URKO APAOLAZA



URKO APAOLAZA



Ezkerreko irudian; Jose Angel Torres, Oartzungo Luberri geologia zentroan. Erdikoan; Intxaurreaga anaiak Zeanuriko Xorokil parajeon: “mapan begiratzen baduzu, Gorbeiaiko parke naturalak kurba bat trazatu eta harrobia egin behar duten lekua inguratzen du”. Eskuinean; harrobiaren kontrako pintada Errezilen, Arzallus auzoan.

“Hau elorri zuria da, hori lizarra...” izendatu dizkigu Iraitzek gure paseoan. Basozaina da Araban eta Arratia Bizirik taldeko kidea. Berak esan digunez, Txorokil inguruko pagadia oso aberatsa da, lepatu gabeko pagoak daude bertan, baita agiña bezalako zuhaitz endemikoa ere. Bertatik pasatzen den erreka funtsezkoa omen da bisoi europarraren kontserbaziorako eta Eguzkiola izeneko haitzuloan saguzarra bizi da. “Joango gara kobara?” esan digute bi anaiak. Mendiaren gainaldean ezkutaturik dago garai batean ETAREN zulo izandakoa, Bronztze Aroko hainbat giza aztarna aurkitu dituzte bertan. “Ingurumen txostenak dio koba kalteturik dagoela ETAK zulo bezala erabili zuelako... sarrera bakarrik erabili zuten-eta!” diote gure gidariek.

Ez dute fede askorik txosten horiengan eta ez dira bakarrik. Talde ekologista askok erreze- loz begiratzen diote ingurumen-inpaktu ikerke- ten emaitzei. Hor dugu Altzoko (Gipuzkoa) Amaia harrobiaren adibidea. Joan den urtean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Altzoko harro- bia handitzeko eskaria, Ingurumen azterketa ontzat emanez. Bada, azterketa horrek inpaktu negatiboak ikusten ditu inguruko hamasei arlo- tan eta positiboak bakarrean –lanpostuetan– baino ez. Hala ere, txostenak ondorio baikorrak ateratu ditu, kalteak “orokorrean” ez direla hain handiak izango baitio eta kasu askotan “errepa- ratu” daitezkeela gainera. “Lanpostuak? Okin- degi batek edo harategi batek harrobiak adina lanpostu sor dezake!” dio basozainak.

Baina, zertarako nahi dute Txorokilgo harria? Zer dago guzti horren atzean? Antzeko beste afe- ratan gertatzen den bezala, ez da erraza proiektu honen benetako interesa argitzea. Canteras de Zeanuri S.L. enpresa Urazca taldearen barruan dago; talde honek errepide, eraikuntza eta trenbi- de askotako lanak egin ditu, eta azken hilabete- tan obra garrantzitsuak esleitu dizkiote: Bilboko metroko azken lanak, Eibar-Gasteiz autopistako

Erdiz, harrobi handiena

Nafarroako Baztanen 63 hekta- reako magnesita harrobia ireki- tzea aztertzen ari dira (11,4 milioi tona mineral). Proiektuak kontra- ko jarrera ugari sortu du

tunelak, Supersurraren zati bat... Horretaz gain, Urazca AHTa eraikitze- ko deialdietan dabil buru- belarri sartuta. Honi lotuta, Txorokil harrobiko sustatzaileek Zeanuriko esplotazioaren beharra justifikatzen dute, esanez Arabako merkatuari

begira agregakin gutxi dagoela eta horre- tara bideratuko dutela: “Hori ez da kasualitatea, AHTaren Urbinako traza- tua (Araba) hemen ondotik pasatzen da”, dio Kimetz zeanuriarrak.

Itxi gabeko piramidea

Beraz, badirudi Txorokilgo kareharriak errail batzuen azpian amaituko duela, tunel bateko labarretan ez bada. Itxi gabeko piramide poligonal baten lehen koska dira harrobiak, makroproiektuen dirdiratik ezkutuan geratzen diren leku lausoak, osinbeltzak. Eta agregakin kontsumoak gora egiten duen bitartean –2005ean biztanle bakoitzeko 7,6 tona agregakin erabili ziren erai- kuntzarako EAEn eta 14 tona Nafarroan– men- dia mokaduka jaten jarraituko dugu, itzulerarik gabeko abiadura handiko bidaia (des)erosoan. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria> helbidean, harrobiei buruzko bideoa.



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre